

Botoak kontatu eta gero

El Mundo del País Vasco, 1991-06-03.

Hauteskunde eguna, aihotza bezala da; galtzairuzko ebakigailu zorrotzak edozer bi zati egiten duen bezala, bereizten du bezpera zaharkitutik biharamun berria.

Batzutan lehengo bera bada ere.

Hautaketa aurretik ezarritako epe barruan dena da libre; ametsa berak ere hartzen du egia den itxura, eta desafioak eta salaketak nabarmentzen dira! Ez da gerra armatua, halere. Beruna eta metrailaren ordezkotik, hitzak dira jaurtikitzen diren munizioak; handiak eta txikiak, xuxenak eta okerrak, kontrarioa botatzeko maliziaz beteak denak. Kolorez tintatuak ere badira batzuetan: punta bizia duten tiro beltzak; kanoi zaharrekin aspaldiko munizioak elebazioz botatuko urdin kolorea galdu ez duten dunbadakoak. Gertuagotik tirokatzen duenik ez da falta: bost haizetako alderdietatik apuntatzen dute begi gaiztoz Euskal Herriko bihotza den aitaren etxea; mehatxuak, asko: artez eta makur. Gezurrak, egiak hainbat balio du gerla honetan, bestetan bezala; bista laburtzen duen laino beltzak edo gorriak sortzen dira non nahi; hemen garbi ikusten ez da posible, baina zikin, nahi duzun guztia.

Bakea ere aipatzen du norbaitek, baina gerra egiteko asmotan; bakearen usoa hil baitzuten. Pentsatzekoa da hemen geratuko dela jende pilo bat etzanda!

Heldu da Eguna. Isiltzen dira mingainak, hasten dira hizketan botoak; ez alferrik, politikoak ez baitu oraindik airez inoren kontrako datozen lehen zenbakien fedezaz sinesten. Orain arte batek aitortu du hila dagoela, eta dimititu, egin du. Gainontzekoak, denak irabazi dute!